Herri Aldizkaria

Otamotz

2001eko iraila 70. alea

Huascarango gailurrean

SANTA ANASTASIAK 2001

BELOKIKO GURUTZEAK 75 URTE BETE DITU

ZELAI ARIZTI BERRIAREN IREKIERA

2001-2002 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINTZA

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA.
Modulo eta ordutegi zabalak.
Bekak.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00

MATRIKULATZEKO EPEA ZABALIK

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago Udal Euskaltegian.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Labeaga kalea, 40 A (Belaustegi plaza berria)
URRETXU
Tel.: 943 72 33 10
euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

Duela 40-45 urte inguru Gabonetan kantuan ateratako gazteen argazkia dugu honakoa.
Goialdean: Ignazio Rekarte, Patxi Irizar, Juan Otaegi eta Jose Txintxurreta.
Erdiko ilaran: Carlos Adrian, Valentin Aldalur, Juantxo Arrizabalaga, Jose Antonio Ormazabal, Ignazio Idigoras eta Daniel Apaolaza.
Behealdean: Jose Luis Etxezarreta, Migel Angel Etxaniz, Jose Luis Egia, Esteban Mendizabal, Paco Mendizabal, Pablo Arrizabalaga eta Luis Ormazabal.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Pagoetako jolas-parkearen inaugurazioa



Hilaren 7an Pagoetako jolas-parke eraberrituaren inaugurazioa izan zen. Inaugurazio ekitaldian Lurra Dantza Taldeko dantzariaren aurreskuaren ondoren, parke berria bedeinkatu zen eta zinta ebaki zen. Haurrentzako jolas batzuk ere antolaturik zeuden arren, eguraldi txarrak bertan behera uztera behartu zuen.

Dakizuen bezala, parke hau duela 20 urte inguru eraiki ziren Ipeñarrietako garajeen gainean egin zen, baina azkenaldian jendeak ez zuen gehiegi erabiltzen eta zaharkiturik zegoen. Bizilagunek eta Udalak parkea berriztatzeko borondatea zuten eta lanen ondoren parkea haurrentzako eta kirolzaleentzako aproposa izango da. Kirolzaleek bi pilotaleku txiki eta saskibaloian, eskubaloian eta futbolean aritzeko aproposa den gunea izango dute. Haurrek, berriz, txirrista eta bestelakoak izango dituzte.

Baina Pagoetako jolas-parkearen eraberritzean beste hainbat lan ere egin dira, bertara joatea erosoagoa izan dadin. Berriki albotik parkera doazen eskilarak konpondu dira eta goialdeko txaletetarako bidea egin da. Bestalde, elizako lorategitik parkera malda bat jarri da elbarrituek parkera igotzeko.

Antiguako XVIII. Musikaldia

Udazkenean Gipuzkoan egiten diren musika emanaldien artean ohorezko lekua lortu duen Antiguako Musikaldia azken txanpan sartu da. Aurtengo edizioari hasiera Varsoviako Piano Boskoteak eman zion irailaren 1ean, irailaren 8an Jazz Klasiko Boskotea aritu zen eta joan zen larunbatean Hodeiertz Abesbatza izan genuen entzungai. Asteburu honetan, berriz, Ricardo Requejo pianojole irundarra izango dugu Antiguan eta datorren larunbatean Le Badinage taldeak emango dio amaiera aurtengo musikaldiari.

Larunbata honetan arituko den Ricardo Requejo pianojoleak sari ugari lortu ditu eta mundu osoan zehar kontzertuak eta ikasgai magistralak eman ditu. Era berean, disko ugari grabatu ditu, hauetako batzuk Teresa Berganza, Maria Bayo edo Manuel Cid bezalako puntako kantari lirikoekin, pianojole laguntzaile gisa. Antiguan Aita Donostiaren Euskal Preludioak eskainiko ditu.

Datorren larunbatean, berriz, antzinako musikan eta tresnetan espezializatuta dagoen Le Badinage taldea arituko da. Talde honek, betez ere, XVI. mendetik XVIII.era bitarteko errepertorioa interpretatzen du, ahal den neurrian jatorrizko tresnez baliatuz. Antiguan Haendelen Bederatzi Aria Alemaniar lana eskainiko dute.

Antiguara joateko asmoa duzuenok larunbata honetan eta hurrengoan duzue aukera eta kontzertuak arratsaldeko 7,30etan hasiko dira.

Herrien Eguna

Joan zen igandean Mairi emakumeen elkarteak antolatzen duen Herrien Egunaren hirugarren edizioa izan zen Kalebarren-Areizaga plazan. Bertan Galizia, Gaztela, Euskal Herria, Extremadura, Errioxa eta Andaluzia egon ziren ordezkaturik stand ezberdinetan, non herri hauei buruzko informazio turistikoa eta produktu tipikoak eskaini ziren. Honetaz gain, Lurra eta Albero dantza taldeek Euskal Herriko eta Andaluziako dantzak dantzatu zituzten.

Joseba Albizu azpeitiarrak irabazi zuen Goierriko Itzulia

Baqué taldeko Joseba Albizu azpeitiarrak irabazi zuen joan zen asteburuan izan zen afizionatu eta 23 urte azpikoentzako Goierriko Itzuliaren XX. edizioa. Euskal Herriko talde indartsuenak diren Baqué eta Olarraren arteko sekulako lehia izango zela uste bazen ere, Baqué talde durangarrak sekulako nagusitasuna erakutsi zuen. Honela, talde honek, sailkapen orokorra irabazteaz gain, hiru etapak eta beste hainbat sailkapen ere irabazi zituen, mendikoa eta taldekakoa, esate baterako.

Goierriko Itzuliko hiru etapak, iazko moduan, Antiguan, Santa Barbaran eta Labeaga kalean amaitu ziren. Antiguan amaitu zen etapa 97an Goierriko Itzulia irabazi zuen eta datorren urtean La Pecol talde portugaldarrarekin profesional mailan arituko den Pello Arreitunandia mutrikuarrak irabazi zuen. Udana igotzen ari zirela talde nagusia hautsi zen eta Zumarragara 16 laguneko taldetxoa heldu zen. Antiguako igoeran taldetxo hau berehala hautsi zen, baina denak minutu bateko tartean heldu ziren.

Bigarren etapan lortu zuen Baqué taldeak bere nagusitasuna inposatzea. Gabiriara igotzen ari zirela Joseba Albizuk eta Pello Arreitunandiak ihes egin zuten eta elkarrekin hasi zuten Santa Barbarara igoera. Joseba Albizu izan zen helmugara iristen lehenengoa eta Pello Arreitunandia 29 segundura heldu zen. Sailkapenean bigarrena zegoen Olarra taldeko Lander Euba izan zen hirugarrena helmugan, Albisurengandik minutu eta berrogeitahiru segundura. Honenbestez, argi gelditu zen Baqué taldeak lortuko zuela aurtengo Goierriko Itzulia.

Igandean Baqué taldeak era bikainean amaitu zuen bere erakustaldia, Labeaga kalean amaitu zen hirugarren eta azken etapa talde honetako Juan Fuentesek irabazi baitzuen. Joseba Albizu, berriz, 6 segundura heldu zen Pello Arreitunandiarekin batera eta ez zuen maillot horiari eusteko inongo arazorik izan.

MASTER CADENA HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Belokiko gurutzea

Urtero bezala, Belokiko gurutzearen festa ospatu zen irailaren 9an. Baina aurtengoa oso ospakizun berezia izan da, egunero herritar ugari biltzen dituen mendi honetako gurutzeak 75 urte bete baititu. Urteurrena ospatzeko, Ostadarrek mendi martxa antolatu zuen eta Belokiko Gurutzearen Lagunak elkartekoek 1926ko maiatzaren 2an gurutzearen inaugurazio ekitaldian izan ziren Ascension Uribesalgo, Cristina Alzola, Juan Jose Badiola eta Angel Cruz Jaka omendu zituzten. Hauei oroigarri bat eskaini zieten eta omenduek bildutako jendetzaren txalo zaparrada jaso zuten. Oroigarria gurutzearen inaugurazio egunean ateratako argazkiak eta Andoni Salamerok urteurrenerako egindako poemak osatzen dute.

1.000 lagun inguru bildu ziren Belokin hilaren 9an gurutzearen urteurrena ospatzeko.

Gurutzeko festa urteurreneko ospakizunetako ekitaldi nagusia izan bada ere, Belokiko Gurutzearen Lagunek elkartekoek beste hainbat ekimen ere egin dituzte urteurrenaren ospakizunen barne. Hilabete honetan, esaterako, urte hauetan guztietan Belokiko gurutzean ateratako argazkien erakusketa izan da Itarte Etxean. Erakusketa honetan herritar askok eta askok utzitako 200 argazki inguru izan dira ikusgai. Bestalde, elkartekoek aspalditik buruan zuten asmo bat ere aurten atera dute aurrera udalaren laguntzaz: Elorriagako gaineko bidegurutzean iturria jarri dute, bai Belokira bai Izazpira doazenek bidean ur freskoa edateko aukera izan dezaten.

Baina ez dira aurten aurrera ateratako ekimenekin amaitzen Belokiko Gurutzearen Lagunak elkartekoen asmoak. Belokiko gurutzearen historiaren eta elkartearen etorkizunerako asmoen berri izateko Jose Roman Urkiolarekin izan ginen. Berak esan zigunez, "elkartearen hurrengo helburua Belokiko gainean dauden pinuak kentzea da. Udala gure asmoarekin bat dator eta inguruko lurrak erosi nahi ditu, baina luze joan daitekeen gaia da, baserritarrekin akordio batera iritsi beharra baitago".

Pinuak bota ondoren aulkiak jarri eta udalak duen mintegitik hazi xamarrak dauden pago pare bat eraman nahi dituzte Belokira. Izan ere, "Beloki paregabeko behatokia da eta bertatik Euskal Herriko mendi asko eta asko ikus daitezke. Udalak ere argi du mendi honen balioa eta pinuak bota ondoren Antiorekin batera Beloki ere turismorako sustatzeko asmoa du. Izan ere, gaur egun jada Antiora etortzen diren kanpotar askok Belokira paseoa ere egiten dute".

Kanpotarren artean Beloki estimatua bada, herritarren artean zer esanik ez. Izan ere, Belokiko gurutzearen historian herritarrek mendi hau zenbaiteraino maite duten argi erakusten duten hainbat istorio badira. Jose Romanek kontatu zigunez, egungo gurutzea baino lehenago egu-

ren 75. urteurrena

rrezko gurutze bat zegoen Beloki gainan, baina tximista batek bota zuen. Gurrutxagako Luis de Agirrebengoa, Soraizko auzokideen laguntzaz, herritarren artean dirua biltzen hasi zen gurutze berria egiteko eta Ameriketara joan zen bere anaiak ere bertan irabazitako lehen dolarrak Zumarragara bidali zituen gurutzea egin zezaten.

Egungo gurutzea zaharra tximista batek bota ondoren eraiki zen herritarrek emandako dirulaguntzarekin

Gurutzea "Talleres de Lucio Idigoras"ek egin zuen, baina 8 metroko altuera duen gurutzea tailerrean sartzen ez zenez, Kalebarrengo aparkaleku berria dagoen lursailean egin zuten. Antiorako bidea ere gurutzea baino estuagoa zen garai hartan eta zabaltzen ari zirela lehergailuak Luis de Agirrebengoaren aurrean eztanda egin zuen. Ondorioz, Luis itsu gelditu zen eta ezin izan zuen, bere alde hainbeste lan egin ondoren, Belokiko gurutzea ikusi.

Gurutzea jarri eta 25 bat urtera argia jarri zitzaion eta herriko familiek ospakizunen bat zutenean ordaindu egiten zuten gurutzea hilabetez pizteko. Ondoren, egunkariko kronikan hilabete horretan gurutzea zein familiak eta zergatik piztu zuen azaltzen zen. Jose Romanek esan digunez "udalak Beloki inguruko lurrak erostea lortzen badu, pinuak bota ondoren gure asmoa gurutzea berriro argiztatzea da".

Zumarragarrek Belokiko gurutzeari dioten maitasuna ikusirik, ez da harritzekoa duela 20 urte inguru Belokiko Gurutzearen Lagunak elkartea sortu izana. Urte hauetan guztietan urteroko festa antolatzeaz gain, Belokiko gaina eta gurutzea ahalik eta ondoen zaintzen saiatu dira eta Jose Roman Urkiolak eskerrak eman nahi dizkie elkartearen izenean lan horretan lagundu dieten herritar guztiei.

Cristina Alzola, duela 75 urte Belokiko gurutzeko inaugurazioan atera zieten argazkia atzean duela.



BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA

Gorka Quevedo

Mohamed, Tusa, Raisa, Jose, Luciano, Ana...

Mohamed 11 urte dituen haur palestinar bat da. Goizeetan esnatzen denean etxera noiz itzuliko den galdetzen dio bere amari. Raisak ez daki zer erantzun bere semeari, eta Mohamedek negar egiten du. Izan ere, 1995. urteaz geroztik, Mohamedek Palestinako herbesteratuek sorturiko kanpamendu batean bizi da bere 8 anai-arrebekin. Zisjordaniako Yhemil kanpamenduan ez dute urik, eta askotan Mohamedek ez du ezer jateko. Mohameden etxea Israelgo soldaduek indarrez hartu zuten.Estatu Batuek ekintza hura lagundu eta babestu zuten. Mohamedek ez du bere aita ezagutzen. Amak esaten dio laister itzuliko dela. Hala ere, ez da inoiz itzuliko. Mohameden aita soldadu israeldar batek hil zuen. Arma hura Estatu Batuek saldu zion Israeli. Soldadu hori Estatu Batuek entrenatu zuten. Israel Estatu Batuen aliatua da Ekialde Hurbilean.

Tusa Mohamed baino urte bat zaharragoa da. Kurdistanen bizi da, Estaturik gabeko munduko naziorik handiena. Tusak ez ditu bere gurasoak inoiz gehiago ikusiko. Tusa bere amonarekin bizi da. Ama orain dela lau urte hil zen, sukarrak jota. Turkiako gobernuak bere herrira eginiko bonbardaketa batetik ihesi zihoala gaixo jarri zen. Lau egun zeramatzan ezer jan gabe, eta ezin izan zuen inongo medikurik bisitatu. Bondardeaketan erabili ziren hegazkinak Estatu Batuetan eginak ziren. Tusaren aita, berriz, Istanbulen dago (Turkia). Hango kartzela batean dago, PKK alderdiko kide izateagatik. Egunero jipoitzen dute bertako zaintzaileek, eta isolaturik dago. Estatu Batuek Turkiako agintariei erakutsitako dispertsio mota baten gatibu da Tusaren aita. Tusaren aita gose greban dago, eta ziurrenik laister hilko da.

Raisa Camboyan bizi da. Bere gurasoak ezagutzen dituen arren triste dago. Izan ere, orain dela hamar egun bi hankak moztu zizkioten. Zergatik? 1968an Estatu Batuek minez josi zutelako bere herria. Raisa lagunekin jolasten ari zela zapaldu zuen mina madarikatu hura. Raisak Irisa asko maite du. Irisa bere lehengusua da, eta Vietnamen bizi da bere gurasoekin. Dena den, bere gurasoak ez dira zoriontsu. Izan ere, ez dute inoiz ahaztuko Vietnameko gerran Estatu Batuek botatako milaka Napaln Death bonbak.

Jose, Luciano eta Ana Matagalpan (Nikaragua) bizi dira. Josek 10 urte ditu, Lucianok 9 eta Anak 7. Egunero goizeko 6etan esnatzen dira lanera joateko. Egun osoa lanean igarotzen dute, kafea biltzen. Bildutako kafea Estatu Batuetako multinazional handi batek jasotzen du. Josek, Lucianok eta Anak egunean dolar erdia irabazten dute. 1985ean Estatu Batuek entrenaturiko Heriotzaren Eskuadroiak 500 lagun hil zituzten Matagalpan. 500 gizaseme horiek FSLNko kideak ziren, eta Jose, Luciano eta Ana bezelako umeen eskubideen alde borrokatu zuten Iraultza Sandinistan.

Somalian gaur 1000 haur baino gehiago hilko dira gosez. Somalian ohikoak dira gerra zibilak. Estatu Batuek ez dute ezer egiten. Estatu Batuak oso pozik daude Somaliako Gerra Zibilekin. 1993an Estatu Batuetako lau petrolio enpresa nagusienek Somaliako lurren laurdena erosi zuten, Estatu Batuen gobernuaren baimenarekin. Iraken 5000 haur hiltzen dira hilabetero ospitaleetan, Estatu Batuak ez diolako uzten Irakeko gobernuari beharrezko sendagailak erosten. Aurten milaka haur hilko dira gosez mundu osoan. Aurten milaka haur hilko dira mundu osoan Estatu Batuetan arazorik gabe sendatu daitezkeen gaitzak jota. Aurten Estatu Batuek Barne Produktu Gordinaren %52a erabiliko dute armen industrian. Diru horrekin munduan gosea bukatzeko aukera egongo zen. Diru horrekin ez zen alfabetatu gabeko haurrik egongo. Diru horrekin mundu osoko gerra gehienak bukatuko ziren. Mohamed, Tusa, Raisa, Jose, Luciano eta Ana triste bizi dira. Estatu Batuek zoriontsu izateko baimena kendu diete.

2001. urteko irailaren 11n mundua astindu zuen gertakari bat gertatu zen Estatu Batuetan. Honezkero, ongi baino hobeto jakingo duzue zertaz ari naizen. Denok izan dugu telebistan irudiak mila bider ikusteko aukera, eta bakoitzak bere interpretazioak egiteko parada izan du. Hala ere, amorrua eta mina eman didate Estatu Batuetatik eta bere aliatuetatik egin dituzten adierazpenak. Izan ere, zein zilegitasun du Estatu Batuak inongo ekintza (militar, terrorista edo nahi duzun bezala definitu) gaitzezteko? Argi dago biolentziak biolentzia ekartzen duela. Baina, norena da biolentzia?

FAMILIA BABES ASEGURUA

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.

-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEGURUA.
-ISTRIPU ASEGURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

Zer iritzi duzu Urretxuko trafiko plan berriaz?



Damian Marco

Ez nago oso gustura, orain zailagoa egiten baitzait herrian kotxearekin ibiltzea. Dena den, gero eta kotxe gehiago dago eta ez da erraza irtenbide egokia aurkitzea.

Feli Soria

Pixka bat haserre nago, HDko bidegurutzea ez baita batere ona eta sekulako ataskoak sortzen baitira. Dena den, norabide bakarra jartzeari ondo deritzot eta bidegurutzeko arazoa konpondu behar dela uste dut.

Karmele Madina

Arazo larriena bideoteka eta Marakaibo inguruan dago, jendeak kotxea edozein lekutan uzten baitu. Bestalde, norabide bakarra ez dago oso ondo, nahiko deserosoa baita.



Jon Biain

Norabide bakarra jarri den lekuan jarrita ez dira gauzak hobetu, arazo larriena bideoteka inguruan baitago. Izan ere, bertan kotxe piloa egoten dira bi ilaratan trafikoa oztopatzen.



Marcelino Martin

Ez dut uste arazoa konpondu duenik. Aparkaleku berriak jarri dira, baina beste leku batzuetatik kendu direnez, lehengoan gaude. Gainera, norabide bakarra dela eta, buelta handia eman behar da orain.

Saioa Garcia de Andoin

Hasieran trafiko arazoak konponduko zirela uste nuen, baina ez dakit ezer konpondu den... Gainera Nekolalden garajea dugunok orain sekulako buelta eman beharra dugu Zumarraga aldera joateko.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanboa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Santa Anastas

IRAILAK 21, OSTIRALA

18,30 - Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK ("ALDIRI KULTUR ELKARTEA KONPARSA") aterako dira. Auzo bakoitzean TXOKOLATADA bat egingo da eta ondoren hasiera emango zaio IBILALDIARI trikitilari eta dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre plazan amaituko delarik.
Ordu berean - ARETO BARRUKO FUTBOLA, Aldiri Kiroldegian.
19,00 - UDAL MUSIKA TAILERRAREN ETA TXISTULARI ELKARTEAREN KALEJIRA.
20,00 -ARETO BARRUKO FUTBOLA, Aldiri Kiroldegian.
20,30 - Iparragirre Plazan ALKATEAREN PREGOIA entzun ondoren KAINOIAREN DANBADA izango da eta herriko kanpai guztiek batera joko dute. Aldi berean, ikurriñak jarriko dira Udaletxeko balkoi nagusian. Trikitilariak, txistulariak, erraldoi eta buruhandiak, Udal Musika Tailerra eta "AKELARRE" TXARANGA arduratuko dira elkartutako jende guztia dantzan jartzen.
Ondoren, "AKELARRE" TXARANGA ibiliko da Urretxuko kaleak girotzen, goizalderarte.
22,30 - Ederrena Pilotalekuan, PROFESIONALEN ARTEKO PILOTA PARTIDUAK.
23,30 .- Gernikako Arbola Plazan UGA taldearen emanaldia.
00,00 .- "IPARRAGIRRE BALERDI" MUSIKA TAILERREKO BANDAREN eskutik, DANTZALDIA Iparragirre plazan.

IRAILAK 22, LARUNBATA

09,00 - Avenida berrian, ABELGORRIEN LEHIAKETAri emango zaio hasiera; "SECUNDINO ESNAOLA" IKASTETXEKO TRIKITILARIAK izango dira giroa alaitzen.
11,00 - URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK Pagoetatik irtengo dira Iparragirre plazaraino etortzeko.
12,00 - ABENTURAZKO PARKEA Lizeoko Plazan: GOMINGa, ROKODROMOA... Ordutegia: goizean 12etatik 2etara; arratsaldean 6,30etatik 9,30etara. Gauean GOMINGak jarraituko du, gaueko 11,30etatik 2,30etara. Tickeak salgai izango dituzue aldez aurretik Kultur Etxean.
12,00 - Ganadu lehiaketaren SARI BANAKETA Avenida berrian. Jarraian, AGIRRE eta MAÑUKORTA BERTSOLARIEN SAIOA.
13,00 - San Martin auzoko aparkalekuan IDI PROBEN LEHIAKETAri emango saio hasiera. Partaideak: goizean, 1etan, URRUZTI. Arratsaldean, 6etan, ELORRIAGA eta BELARRETA
13,30 - Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko dutenei ongietorria Udaletxean.
15,30 - Odriozolaren plazatxoan, PLATER TIRALDIA arratsaldeko 8ak bitartean (izen-ematea, arratsaldeko 7ak arte; entrenamenduak, goizeko 10etatik 1ak arte).
17,30 - "HANKAGORRI" haurrentzako taldearen eskutik "URBASAKO ASTRONAUTAK" kaleko ikuskizuna, Gernikako Arbola Plazaren jolas parkean.
18,00 - Ederrena pilotalekuan, XXVI. GASTRONOMI LEHIAKETA hasiko da. Jangaia: EPERRAK SALTSAN.
Ordu berean, "BIZNIETOS DE CELEDON" TXARANGAK herriko kaleak alaituko ditu eta IDI PROBEN 2. Saioa izango da.
18,30 - Kaleetan zehar HERRIARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIAn parte hartuko duten taldeen desfilea .
Ordu berean, ABENTURAZKO PARKEA.
19,00 - Gernikako Arbola enparantzan, HERRIARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIA. Partehartzaileak: "Grupo Municipal de Danzas San Ildefonso" (Mairena del Algarafe- Sevilla) eta "Alegrias de Tiembles" (Tembleque- Toledo). Eguraldi txarra eginez gero, "Aldiri" Kiroldegian izango litzateke.
21,00 - XXVI. Gastronomi Lehiaketako bi sukaldari irabazleak ezagutu ondoren, sukaldari eta laguntzaileek prestatutakoa triparatuko dute. Afalondoa "BIZNIETOS DE CELEDON" txarangak alaituko du.
23,00 - Iparragirre plazan, KANTU, MUSIKA ETA DANTZA JAIALDI IKUSGARRIA (eguraldi txarra eginez gero, "Aldiri" Kiroldegian).
23,30 - Lizeoko plazan, GOMINGa goizeko 2 t´erdiak arte.
Kaleetan zehar, goizeko 3 tíerdiak arte "BIZNIETOS DE CELEDON" txaranga.
00,30 - Gernikako Arbola Plazan, DANTZALDIA "AMADEUS" ORKESTAREKIN.

IRAILAK 23, IGANDEA

EUSKAL JAIA

10,00 - URRETXUKO TXISTULARI, ZUMARRAGAKO TRIKITIXA ETA IRATZARRI DULTZAINEROen KALEJIRA.
Aldi berean, GOIZEKO EUSKAL JAIALDIA,
11etan - Kiroldegian Beasain, Bergara, Berriozar, Legazpi, Olasti, Ordizia eta Urretxuko ERRALDOIAK bilduko dira, kalejiran Iparragirre enparantzaraino joateko.
11.30etan hasita eta arratsaldeko 2ak arte Iparragirre plazan: sagardo eta txistorra dastapena; Urretxu eta inguruko herrietako artisauak eta Iparraldeko herrialde bakoitzeko ordezkari artisau bat.
JAIALDI ikusgarria: herriko trikitrilariek, dultzaineroek, txalapartariek, dantzariek, eta erraldoiek herria girotuko dute. ATARRATZEKO DANTZARIAK ere kalez kale ibiliko dira gure herria girotzen.
Eguerdiko 1etan, BERTSO-ESKOLAK "Iparragirreren itzulera" lana antzeztuko du Iparragirre plazan.
12,30 - MEZA NAGUSIA Martin Deunaren Eliza Nagusian.
17,00 - "URRETXUKO EUSKAL JAIA 2001" Argazki Rallia. Gaiak Euskal Jaiaren inguruakoak izango dira. Izen-ematea eta informazioa Urretxuko Kultur Etxean egin beharko da arratsaldeko 5etatik 5,30ak bitartean.
17,30 - KARROZEN IBILALDIAREN irteera Mugitegitik. 11 koadrila arituko dira lanean.
18,30 - Gernikako Arbola Plazan, URRETXUKO TXALAPARTARIEN eta ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN saioa.
19,15 - Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola Plazan sartzen hasiko dira. Ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA jakinaraziko da.
23,00 .- Gernikako Arbola Plazan, DANTZALDIA "SORBELTZ" taldearen eskutik.
23,30 - EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA, kantu eta musikarekin batera, Gernikako Arbola Plazan.
00,00etan - "BEDAIOKO INGURUTXOA", dantza herrikoia, Gernikako Arbola plazan.
Ondoren, dantzaldiak jarraituko du "SORBELTZ" taldearekin goizaldeko 3,30ak arte.

siak 2001

IRAILAK 24, ASTELEHENA

KOADRILEN EGUNA

11,30 - HAURRENTZAKO JOLASAK Iparragirre Plazan, eguerdiko 2ak arte eta arratsaldean 4etatik 7ak arte: gaztelu puzgarriak, gargantua, trena, etab.
12,00 - Gernikako Arbola Plazan, IKUSKIZUN BEREZIA: TRIALSIN. Erakustaldi aparta Nafarroako BENITO ROS eta RAUL ROS goi-goi mailako txirrindularien eskutik. Gainera beraiekin batera Ezkio-Itsasoko MAITANE ANDUEZA ere arituko zaigu.
Ondoren, "IRAUNKORRAK" TXARANGA eta koadrilen musika alaiaz lagundurik, HERRI KALEJIRA.
14,30 - HERRI BAZKARIA Avenidan.
16,00 - HAURRENTZAKO JOLASAK, Iparragirre Plazan, arratsaldeko 6ak bitartean. Gaztelu puzgarriak, trena...
17,00 - Bazkarian erabilitako mahaiak jasoko dira.
18,00 - Gernikako Arbola Plazan HERRI KIROL JAIALDI ikusgarria.
Aizkolariak: OLASAGASTI eta ARROSPIDE bikotea NAZABAL eta PEÑAGARIKANOREN aurka. Lanak: enbor bat nork azkarrago ebaki, enbor bat nork kolpe gutxiagotan ebaki eta 8 enbor nork azkarrago ebaki.
Juan Jose Unanue "GOENATXO II" 3 harri ezberdinekin neurtuko ditu bere indarrak.
Lokots bilketa: Urretxuko ASIER IZAGIRRE eta JESUS LIZARAZU, Legazpiko GORKA RODRIGUEZ eta Ezkioko ENEKO ZABALETAren aurka. Lana: 50na kaskara bildu.
18,30 - Iparragirre plazan, KUKUBILTXO taldeak "TXIRRIKIZ" izeneko HAURRENTZAKO ANTZERKIA eskainiko du.
21,00 - KANTU-AFARIA Avenidan. Zintzo-Mintzo elkarteak antolaturik.
23,00 - Gernikako Arbola Plazan, DANTZALDIA "TRIKI TRAKE" taldearen eskutik.

IRAILAK 29, LARUNBATA

Egun osoan zehar, HERRIARTEKO "24 ORDUKO IRRATSAIOA", Santa Barbaran,. Gonbidatuta zaudete guztiok bertara hurbildu eta ekintza honetan parte hartzera eguerdiko 12etatik aurrera.

GIZARTERATZEKO II. KIROL JARDUNALDIA,
URRETXU SARIA
-10,30etan boccia Lizeoko plazan.
-11,30etan slaloma (gurpil-aulkian) Lizeoko plazan.
-12,30etan basketa (gurpil aulkian). Zuharrak (Bilbo)-Zuzenak (Gasteiz).
-17etan atletismoa (gurpil aulkian).

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOS ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42

HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

Juan Luis Elgarresta

Lurra Dantza Taldea

"Dantzak herrien nortasunaren isla dira"

Juan Luis, Eslobakiako dantzari batzuekin, Lurrak urte hauetan guztietan egindako irteeretako batean.

Edozein herritako jaietan musika eta dantza ezinbesteko osagarriak izaten dira eta Urretxun ere, nola ez, hala izaten da. Ostiraletik astelehenera herriko musikariek dantzan eta kantuan jarriko gaituzte atsedenik gabe. Batzuk hobeto eta besteok okerrago, hor arituko gara musikaren errimoa jarraitzeko ahaleginetan. Bestalde, dantzarien herriko dantzarien eta kanpotik etorritakoen lana ikusteko aukera ere izango dugu. Hauen artean, beti bezala, dantza egiteaz gain Herriarteko Folklore Jaialdia antolatzen duten Lurra dantza taldekoak izango dira. Urretxuko Dantza Talde honen lanari buruz hitz egiteko Juanlu Elgarrestarekin izan gara. Juanlu duela 23 urte hasi zen Lurra Dantza Taldean dantzatzen arin-arina eta fandangoa ikasteko asmoarekin. Baina urteak pasatu ahala edozein lekutako dantza eta folklorearekin maiteminduta bukatu duela aitortu digu eta ez du dantza uzteko inongo intentziorik. Izan ere, Juan Luisek berak esan digunez, dantzak dena eman dio.

Noiz eta zer helbururekin sortu zen Lurra?

Lurra, Euskal Herriko beste dantza talde askorekin batera Francoren garaian sortu zen, Euskal Kulturak jasaten zuen zapalkuntzari nolabaiteko erantzuna emateko asmoz, 1965eko Santa Anastasietan zehazki. Lehenago Batasuna dantza taldea zegoen, baina ezin dezakegu gaur egun ezagutzen ditugun taldeekin parekatu. Dantza zehatz batzuk ikasten ziren bertan eta talde hark ez zuenez iraun, bai Urretxuk eta bai Zumarragak dantza talde propioak sortu zituzten.

Urteekin gauzak asko aldatu al dira?

Bai, baietz uste dut. Lehen helburua euskal kultura eta nortasuna herrian erakustea zen. Garrantzitsuena dantzari erropak janztea edo ikurriña ateratzea zen eta ondo dantzatzea ez zen hain garrantzitsua. Egun, berriz, garrantzitsuena ondo dantza egitea da eta horretarako lan handia egin beharra dago: asko entsaiatu, jantzi onak eraman, musikari onak izan... Musika aldetik, adibidez, egun denetarik daukagu: soinulariak, txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak... Bestalde, "Zuhatzairen Soinua" taldeko txalapartariak ere gurekin etortzen dira kanpora joaten garenean. Hau oso interesgarria da, honela kanpoan ere txalaparta ezagutarazten baitugu eta herrian ditugun txalapartariak bikainak baitira. Egun, erreibindikazio lana kanpora joaten zarenean egiten da, dantzen bidez zure herriaren nortasuna erakusten baituzu.

Zenbat denbora daramazue Euskal Herritik kanpo dantza egiten?

Hamairu urte daramatzagu jada kanpora bidaitzen. Nire iritziz, kanpora joatea, euskal nortasuna gure mugez bestalde erakustea, errazena eta politena da. Baina bakoitzak oso kritikoa izan behar du norberaren lanarekin. Adibidez, hemen inguruko dantza talde batzuen helburua kanpora bidaitzen dutenean ondo pasatzea da, dantzaren beraren konposaketa eta plazaratzeari garrantzi handirik eman

gabe. Kontu horretan gure dantza taldea nahiko serioa da. Ez dut esaten parrandarik egiten ez dugunik, baina dantzatzeko ordua iristen denean oso serio hartzen dugu. Beste herrialde batera joaten bagara, euskal herriko dantzak erakustera joaten gara, eta Euskal Herria ordezkatzen ari gara. Lau katu erdi-mozkortuta dantzan jartzen badituzu... akabo.

"Lehen dantzari erropak janztea eta ikurriña ateratzea zen garrantzitsuena"

Euskal Herritik kanpo non bizi izan duzue esperientziarik politena?

Hori oso zaila da esatea. Gure lehenengo bidaiaz, Zaragozara joan ginen, oso oroimen polita dut, baina beharbada lehenengo bidaia izan zelako. Ordutik hona sekulako jaialdiak egin ditugu Andaluzian, Alikanten.... Dena den, nire ustez irteera guztiak izan dira interesgarriak eta aberasgarriak. Izan ere, jaialdi hauetan beste dantza taldeetatik asko ikasten da. Bestalde, Euskal Herritik eta Espainiatik kanpo Portugalen, Italian Frantzian edo Alemanian ere egon gara.

Uda honetan Sevillan izan zarete, zer moduz bertan?

Sekulakoa izan da. Euskal Herrian bertako folklorea ez badugu gehiegi ezagutzen, han zer esanik ez. Gure dantzek ere harrera oso ona izan zuten eta Euskal Herriko dantzek jendea harrituta utzi zuten. Baina noski, folklorea gustatzen bazaizu, badakizu zein den dantza talde ona eta zein ez. Oso esperientzia polita izan da: oso ondo portatu dira dantza talde guztiekin eta dantza taldeen maila ere oso ona izan da. Murtziako eta Sevillako dantza taldeek txundituta utzi ninduten. Esan beharra dago Sevillakoak hemen izango direla festetan.

Nondik ateratzen duzue irteera hauek guztiak egin ahal izateko behar duzuen dirua?

Gezurra dirudien arren, gehiena zozketen bidez ateratzen dugu. Gaur egun udalek, ez bakarrik hemengoek, ez diete dantzei duten garrantzia ematen. Ez dago dantzei garrantzia ematen dion alderdi politikorik. Gauza oso konplikatua da. Lehenik eta behin galdetu beharko litzaieke kultur zinegotziei ea kultura zer den; eta bigarrenik zer garrantzi ematen dioten dantza talde bati. Badakit kultura oso zabala dela, gaur egun kirola ere kultura dela, ba pentsa ezazu. Euskara kultura da, baina ez ote du bere eremu propioa merezi? Sevillan egon garen herriko alkateak esan zuena esango dizut: "Herri baten nortasuna folklorean dago". Alkateak zionez hori zen udalak bultzatu behar zuena, nahiz eta beste gauza batzuk kolokan utzi. Alkate bati hori entzutea ikaragarria da. Hemen, ekitaldi edo data konkretu batzuetan bakarrik gogoratzen dira gutaz, Santa Anastasiatako jaialdirako, Dantzari Txikirako... dirulaguntza txiki bat jasotzen dugu eta gainontzekoa zer? Kultura arloan ikusmirak zabaldu behar direla uste dut, dena ez baita kirola. Zer izango zen onena udalarentzat, Lurra desagertzea? Orduan zer gertatuko zen? Lortu duguna guk lortu dugu, ez beste inork. Baina hau nire iritzia da, Juan Luisena.

Badakigu Gainzurin entsaitzen duzuela. Ba al duzue aldatzeko asmorik edo aukerarik?

Gogoa bai noski, baina ez dugu aukerarik. Gain-Zurik bere borondate guztiarekin txoko hori uzten digu eta eskertzen diegu. Udan entsaiatzeko ondo dago, baina neguan ez da batere egokia. Txikienak Lizeoko gimnasiora eramaten ditugu, baina hamar urtetik gorakoak, beste 60 gutxigorabehera, Gain-zurin aritzen dira urte guztian.

Zer balorazio egingo zenuke urte hauetan guztietan egindako lanaz?

Oso harro nago Lurrak duen funtzionamenduaz, eta esan beharra dago estatuko folklore erakundeetan nahiko sarturik gaudela. Gaur egun Lurrak aurrera eramaten dituen dantzak oso ondo ikusirik daude eta lan handia egin ondoren maila ona lortu dugu. Benetazko dantza talde baten itxura ematen dugu, eta hori oso garrantzitsua da.

Bukatzeko, zeintzuk dira zuen etorkizunerako asmoak?

Gure asmoa orain arteko seriotasuna mantenduz lanean gogor eta gogoz jarraitzea da, ikasten jarraitzea. Honekin batera euskal nortasuna edozein lekutara eramatea, eta noski, Urretxun jendeak dantzak ezagutu ditzan gogor lan egitea. Horretan ikastaro laburrak ere antolatzen ditugu. Taula gainean itxura ona ematen jarraitu nahi dugu eta horretarako ezinbestekoa da taldekideen artean giro ona izatea. Zorionez, taldekideon artean oso harreman ona dugu.

Lurra Dantza Taldeko dantzariak 99ko Euskal Jaia egunean.

Benetako esnea aldarrikatzen

Goimenen erronka: baserriko esnearen alde



Urretxuko Agerre baserrikoak Baserriko Esnea Elkarteko kideak dira.

Jada badira urte batzuk esnez betetako marmitarekin saltzen ibiltzen ziren baserritarrak ikusten ez ditugula. Non geratu da marmitetan zetorren baserriko esne hori? Non salmenta zuzenean zenbiltzan baserritarrak? 70 - 80 . hamarkada bitartean galdu zitzaigun maitekiro deritzogun "Marmitteroa"-ren figura. Industrializazioaren areagotzeak, lan merkatuaren aldaketak eta honekin emakumezkoa lan munduan sartzeak, aldaketa nabarmenak sortarazi zituen gizartearen egituran eta ohituretan. Denborarekiko bizikeran aldaketak eman dira, praktikotasun eta erosotasun jarrerak lehenesten direlarik.

Ondorioz... oraina, egunerokotasuna alde batera geratzen doaz. Erosketa ohituretan, elikagaiekin adibidez maiztasuna murriztu egiten da, astean behinekoa eta bolumen handiagokoa izaten delarik, azalera handiko merkatuan eginez. Bertan erosten diren zenbait elikagai, iraupen luzeago bat izateko egokitu dira eraldaketa bitartez. Horien artean tetra-brick -ean datorren esnea dugu, UHTak (Ultra Hight Temperature: Tenperatura altuaz, epe laburrean esterilizatua), gaingabetuak, erdigaingabetuak, homogeneizatuak, kontzentratuak, Kaltzio edo bitaminaren batekin "aberastuak"...eta beste eduki batzuetan esne hautsa, kondentsatua... iragarkietan diotenez, "bikainak" denak ere, horrela ote?

Prozesu industrialen bitartez emandako esneak ez du haserako konposaketa

Goimen Elkartetik badira urte batzu, salmenta zuzenean dirauten baserritarrekin batera lanean gabiltzala eta bertako hornitzaile diren baserritarrak beren jarduera mantentzearen garrantzia azpimarratu nahi luke. Honekin, asmoetariko bat, berezko behi esnearen ezaugarriak goraipatzea da, bueltan sortu diren zenbait lelo desmitifikatuaz eta goierritar biztanleria aukera honetaz kontzientziatu nahirik. Jadanik, belaunaldi berriek benetako esnearen ezagutza galdu dute, eraldatutako "esnea" kontsumitzen dutelarik.

Elkarteak, guztion onurarako den produktuari bere tokia eman nahi lioke, esnearen benetako kalitatea bere horretan baitatza. Belaunaldiz belaunaldi bertako kulturan barneraturik egon den etxez etxeko salmenta zuzenak, egungo ohitura berriekin edo atzerritar kulturaren ezartze honekin, jipoi bortitza jaso du eta esnearen kasuan produktuak merkatuan duen potentzialitatea ikusita, nabarmenagoa izan da jasandako aldaketa. Iragarkietan Light korrontea, kolesterola eta abarrek, "Zure gorputza zaintzeko", "Naturala", "Benetako zaporea" eta horrelakoekin, zuzenean behiak eskaintzen digun eta elikaduran oinarrizkoa zaigun edariari bere benetako justifikazioa ostu diote, artisau eta baserri-

ko beste produktuekin gertatzen den bezala.

Izan ere, baserriko esneak grasa gehiago omen dauka, eta egia esan bataz beste Kolesterol maila litro bat esnetan 120 mg-takoa da, arrautza batek duenaren erdia baino gutxiago! Mila behiren esne nahasketatik eta prozesu industrialen bitartez emandako eraldaketatik sorturikoak ez du esnearen hasierako konposaketa eta estruktura kimikorik mantentzen, aldiz, baserriko esneak zuzenean behi esnea eskaintzen du.

Azaltzen duen gain maila zein zaporea ez da trinkoa, behiak jaten duenarekin eta naturaren zikloekin lotura zuzena baitauka, eta ondorioz gain mailak ere bariazoak izaten ditu. Horretaz gain, esne honekin gaingabetze maila norberaren esku geratzen da eguneroko gosarietan, eta askok (jatetxe, gozotegi eta okindegiak batik bat) ez dute zalantzarik bazkari goxo bat, bexamela, arroz esne, gaileta, bizkotxo eta abar prestatzerakoan.

Gaur egun baserriko esnearen salmenta honek bizirik dirau, merkatuan dagoen esne motetatik originala den bakarra delarik. Esnea, Bizkaia eta Gipuzkoako baserritarrez osaturiko Baserriko Esnea Elkarteko kideak kaleratzen dute, egunero produktore-kontsumitzaileen arteko hurbiltasuna mantenduz. Goierrin hiru baserri ditugu, Iztueta Lazkaomendin, Agote Etxeberri Garin auzoan eta Agerre Urretxun.

Goimen Elkarteak, baserriko esneak merezi duen lekua aldarrikatu nahi luke, merkatuan zein guztion elikaduran (haurren elikaduran batez ere) duen garrantziagatik.

Goimen

Esne salmenta zuzenaren eboluzioa

Garai batetik dezente aldatu da, arrazoi desberdinak direla medio.

Garraioan: Erosoago, azkarrago eta baldintza sanitario hobetan egiten da. Garai bateko astoetatik gaur egun egokitutako banaketa furgonetara pasatu da.

Kontserbazioan: Esnea jezten denetik hoztu eta kalerako bidean ere, esnea –4, -6 ºC-tan mantentzen da, bere propietate eta kalitate bakteriologikoa mantenduz. Hau ziurtatzeko kontrolak egiten dira.

Banaketan: Garai batetik duela oso gutxi arte marmitetan garraiatu eta banatzen zen. Orain plastikozko poltsatan egiten da, osasun baldintzak bitarte. Honekin batera elikagaiak maneiatzeko karneta ere badute eta hamabostaldiro beren esneen muestrak analizatzen dituzte laborategietan.



Agerre baserrikoek egunero esnea plastikozko poltsetan sartzeko erabiltzen dituzten makinak.

Ikuiluan egindako hobekuntzak:

- Eraikuntzak berritu, bentilazioa hobetu, ximaurrak kanpora atera...
- Saneamendu kanpainaren bidez behi gaixo guztiak kendu eta sanidade neurriak hartu.
- Esnea biltzeko zisterna mekanizatu , zuzenean tankera eramanez.

Berrikuntza guzti hauek direla eta esan genezake kalitate on eta kontrolatu batez saltzen dela gaur egun zuzenean eguneko baserriko esnea.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilaritza
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

ARRAINDEGI
baterako pertsona bat
behar da
BERGARAN
☎ 607 66 02 44

Zelai Arizti areto ber

Zintaren mozketak emango dio hasiera gaur arratsaldeko 6etan Zelai Arizti zinemaren inaugurazio ekitaldi nagusiari. Ordu erdi beranduago zozketan suertatuak izan diren herritarrek Euskadiko Orkestraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute. Dena den, ia hamarkada luze batez itxita egon ondoren, joan zen asteburuan jada areto berriko ateak zabaldu ziren herritarrek eraberritze lanen ostean nola gelditu den ikus zezaten. Zelai Arizti itxita egon den urte hauetan Pagoeta Antzokiak, bi herriotako pilotalekuek eta La Salle ikastetxeko aretoak, bete dute, ahal zuten neurrian, Zelai Ariztik utzitako hutsunea. Baina argi dago eskaintzen dituzten baldintzak ez direla aproposenak eta gainera, ez daude zinea eskaintzeko prestatuak. Hori dela eta, urretxuar eta zumarragarrok ikusminez jarraitu ditugu Zelai Ariztiren berriztatze lanak eta joan zen asteburuan herritar hurbildu zen areto berriztatua ikustera.

Goiargi Txiki koruko haur gehienak larunbatean izan ziren lehenengoz Zelai Arizti barruan.

Areto egoki baten gabezia gehien pairatu dutenak herriko kultur taldeak izan direnez, eurak izan ziren zinema berria estreinatzeko ohorea izan zutenak. Honela, larunbata goizean "Antziñako Ama" txistulari taldeak, "Goiargi Txiki" koruak eta Secundino Esnaola Musika Eskolako ikasleek euren saioak eskaini zituzten. Arratsaldean, berriz, "Irrintzi" dantza taldea aritu zen eta gauean "Karmakros" antzerki taldearen txanda izan zen. Igande eguerdian Zumarragako musika bandak kontzertua eskaini zuen eta arratsaldean "Goizalde", "Goiargi" eta "Kimets Goiargi" koruak aritu ziren. Igande arratsaldean izan zen ere Jesus Segurolak idatzi duen "Izadi eta gizaki arteko arremanetan lar" liburuaren aurkezpena.

Baina inaugurazio ekitaldiak ez dira gaurkoarekin bukatuko, Zumarragako Udaleko kultura arduradunen asmoa ekitaldi hauek zinema eraberrituaren lehenengo urtean luzatzeko asmoa baitute. Zinema komertzialaren lehen emankizuna, berriz, aurki izango da, baina data ez da zehaztu oraindik. Estreinaldia jendetsua izango da seguraski, 93az geroztik, lehenengoz hamarkada luzetan, urretxuar eta zumarragarrok ezin izan baitugu herrian bertan zazpigarren artea deritzonaz gozatu ahal izan eta jendea irrikitan baitago. Izan ere, gutako askok Itzalon eta Zelai Arizti zinemak soilik ezagutu ditugun arren, 20ko hamarkadan herriko lehen zinema zabaldu zenetik, 36ko guda garaian izan ezik, ia astebururo Zumarraga eta Urretxun filmaren bat ikusgai izan dela esan daiteke.

> Herriko kultur taldeak izan ziren joan zen asteburuan zinema berria estreinatzeko ohorea izan zutenak

ria prest dago

Zumarragako eliza ondoan zegoen Itzalon zinema zaharra 1976an bota zuten.

Zumarragako Udaleko agirizaina den Antonio Pradak eskainitako informazioaren arabera, herriko lehen zinema aretoa 20ko hamarkada hasieran zabaldu zen Novedades izenekoa izan zen. Zelai Ariztiko eskoletan zegoen areto hau, 36ko guda iritsi bitartean egon zen zabalik. 1936an, Mola jenerala hurbiltzen ari zela eta, herrian gehiengoa ziren errepublikarrak eta inguruko herrietatik laguntzera etorri zirenak Zumarragaren defentsa antolatzen hasi ziren. Kanpotarrek nonbait lo egin beharra zutenez, zinea horretarako egokitu zen. Dena den, ez zen hau garai hartan Zumarraga eta Urretxun zegoen zine bakarra. Urretxuko Ederrena pilotaleku zaharrean ere, aldagelen alboan, zine saioak eskaini ziren 1924tik aurrera eta 30ko hamarkadarako Zumarragako parrokia atzealdean Itzalon izeneko zinema aretoa zabalik zen.

Zinema areto txiki hauetan herritarrek garaian garaiko filmarik esanguratsuenak ikusi eta aktorerik mirestuenak ezagutu ahal izan zituzten 50 hamarkada amaieran, ia aldi berean, askoz ere modernoagoak eta erosoagoak ziren Itzalon berriak eta Zelai Ariztik euren ateak zabaldu zituzten arte.

Itzalon berria elizak ireki zuen Zumarragako erretorea zen Domingo Irigoienen ekimenez eta Zelai Arizti, berriz, Tolosako Cines y Teatros Aroseaga S.A.k. Enpresa honek Victor Eusa arkitektu iruñearraren esku utzi zuen zinemaren diseinu lana. 1956an 1.000 pertsona ingururentzako lekua izango zuen zinemaren planoa aurkeztu zuen, baina atzera bota zioten. Ondoren, bigarren proiektu bat aurkeztu zuen; honetan 600 lagunentzako lekua zuen zinemarekin batera etxebizitzak ere azaltzen ziren eta honela egin zen azkenean.

> Zumarragako lehen zinema aretoa 20ko hamarkada hasieran zabaldu zen Novedades izenekoa izan zen

Zelai Arizti bere horretan mantendu zen 1976an Txema Mendiola aparejadore zumarragarraren eskutik fatxada eta barrualdea txukundu ziren arte (jatorrizko egurrezko eserlekuak erosoago batzuengatik aldatu ziren besteak beste). Dena den, eraikinaren arkitekturak ez zuen aldaketarik

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak ● Bataioak ● Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

izan eta duela ia hiru urte hasi zen azken eraberritze honetan ere eraikinaren egitura bere horretan mantendu da. Hala izanik, sarrera eta txarteldegia beti egon diren toki berean daude; baina taberna berria sarrera gelan jarri da eta lehen taberna zegoen lekua ikuskizunetarako beharrezkoa izango den tresneria sartzeko erabiliko da.

Dena den, aretoak berak izan du eraberritzerik sakonena. Udalak era guztietako ikuskizunetarako egokia izango den aretoa prestatu nahi izan du. Hori dela eta, eszenatokiak 92m2 izango ditu (lehen 40m2 zituen) eta mota ezberdinako bozgorailuak jarri dira (batzuk filmak entzuteko eta besteak musika entzuteko). Eszenatokia jatorrizkoa baino askoz ere handiagoa denez, areto berriak 328 eserleku besterik ez ditu izango (bi elbarrituentzat egokituak). Aldaketa hauek guztiak ikusleon eta kultur taldeen erosotasunaren mesederako egin dira eta joan den asteburua geroztik beraietaz gozatzeko aukera dugu. Baina, zein izango da Zelai Arizti zinemaren eskaintza? Honen berri izateko Zumarragako Udaleko kultura teknikaria den Izaskun Larrañagarengana jo dugu.

Izaskunek esan digunez, "Programazio egonkor bat eskaintzeko asmoa dugu. Astebururo zinearen ustiapenaz arduratuko den enpresak zine komertziala eskainiko du eta gure asmoa hilean behin ikuskizunen bat eskaintzea da. Bestalde, herriko taldeek areto berriko ateak zabalik izango dituzte euren emankizunak bertan eskaini ditzaten eta partikularrek aretoa alokatzeko aukera izango dute. Astegunetan aretoa Udalaren esku izango da eta zinea eskaintzeaz arduratuko den enpresak urtean 25 asteburuko egunetan aretoa Udalari utzi beharko dio herriko taldeek eta Udalak ekarritakoek erabil dezaten".

Aretoaren eraberritze lanen kronika laburra

Itzalon eta Zelai Arizti aretoak 93an itxi ziren eta Zumarraga zinema aretorik gabe geratu zen lehenengoz urte askotan. Gabezia honi aurre egiteko, Zumarragako Udalak bi aretoetako bat erostea erabaki zuen, baina alderdi politiko guztiak ez ziren eritzi berdinekoak: batzuk Itzalon erostearen aldekoak ziren eta besteak, berriz, Zelai Arizti erostearen aldekoak. 1992ko ekainaren 29ko udalbatzan, eztabaida bero baten ostean, PSE, EUE eta HB alderdiek bozketa irabazi zuten eta Zelai Arizti erostea erabaki zen.

Zelai Arizti zinemaren jabea Tolosako "Cines y Teatros Aroseaga" elkarte anonimoa zen (Banco Guipuzcoano zen akziodun nagusia) eta akzioak sakabanaturik zeudenez, Udala akziodun guztiekin harremanetan jarri behar izan zen eta bakoitzari bereak erosi. Zinema lortu ondoren, eraberritu beharra zegoen eta Udalak argi zuen eraikuntzaren egitura bere horretan mantenduz mota guztietako ikuskizunetarako egokia izango zen aretoa prestatu beharra zegoela.

Udalak proiektu lehiaketa antolatu zuen eta Max Centerreko zineetako arkitektuak izan ziren Pedro Marcos eta Ramon Losada bilbotarrak soilik aurkeztu ziren. Zelai Arizti eraberritzeko lana Necso enpresari eman zitzaion eta 98ko abenduan hasi ziren lanean. Horretarako hainbat aholkularien laguntza izan dute. Aretoa ikuskizun ezberdinetarako egokia izan dadin Sarobe Zentruko Kike Santiagoren laguntza izan dute. Honek eskenatokiak zein ezaugarri izan behar dituen, akustika eta argiztapena nolakoak izan behar diren... zehaztu du. Zine proiektorea saldu duen enpresak, berriz, filmak ondo ikusi eta entzun ahal izateko baldintzak ezarri ditu. Zuzeneko ikuskizunek eta zineak akustika ezberdina behar dutenez, Audiolab enpresak laborategian neurketak egin ditu aretoko akustika bietarako egokia izan dadin.

Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIAK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Aingeru, ez dakigu ba zure izenarekin bat zatozen. Argazkian neska "pikaro" xamarra dirudizu! **Zorionak!**

Ainhoa, hori da hori irrifarrea! Amonak goxokiren bat eman al dizu? **Zorionak** eta segi horren irrifartsu!

Aitor, Santa Anastasietarako alda ezak aurpegia pittin bat motel, bestela ez duk batere ligatuko eta! **Zorionak!**

Amaia, ez zenuen zure hitza bete eta ez nuen dantzatzerik izan. Bushen laguntzaz mendekua izango da!

Ander, Realzaleren bat zapaltzen ari al zara? Kostako zaizu daudena baino beherago bidaltzea!

Andoni, kontuz ibili hadi, bestela aurki buruarekin lurra joko duk eta! **Zorionak!**

Arrate, berriro ere katekesiko ume deabruak ikusi behar dituzulako al zaude horren serio? **Zorionak!**

Borja, hori da hori txintxo aurpegia duzuna! "La casa de la pradera"koa dirudizu! **Zorionak** eta ondo pasa!

Elizabet, ez dakigu zeri, baina hari irrikaz begira zaudela argi dago. Ez dizu ez ihes egingo! **Zorionak!**

Garikoitz, alaitu ezazu aurpegia motel, furgoneta ostu dizutela dirudi eta! **Zorionak!**

Ignazio, ez al duzu ondo lo egiten? Ikastolara pijama eta guzti joan beharko zara! **Zorionak** eta ondo ibili!

Iker, ez dirudi ikasturte berria hasi delako oso haserre zaudenik! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Iñaki, atera zaitez ilunpetik, itxi ezazu ahoa eta kamerari aurrez aurre begira iezaiozu, arren! **Zorionak!**

Jesus, irudia zaindu beharra dago: herriko apaiza ezin da argazkietan maltzur aurpegiaz atera! **Zorionak!**

Mikel, Betiseko kamiseta garbitu eta plantxatu al duzu jada Ikastolara eramateko? Aurten bai gustura!

Josean ez hadi kandelei horrenbeste gerturatu, bizarra erreko zaik eta! **Zorionak!**

Zorionak Joxepa familiako guztien izenean eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Julen, ez zaitez negarrez hasi Gabonetako oporrak uste baino lehenago heldu-ko dira eta! **Zorionak!**

Julen, zer moduz hasi da ikasturtea? Oporretan bezain gustura ez zara izango, baina tira... **Zorionak!**

Leire, nabari da bai Aintzaneren "banda"koa zarela... a zer nolako marimatxarda aurpegia duzun! **Zorionak!**

Leticia, hori da hori txintxo aurpegia duzuna... gurasoei galdetu beharko diegu ea hala den! **Zorionak!**

Lide, zuk ere eskolara joateko gogo gutxi al duzu? Guk ere ez dugu lanerako gogo handirik ba... **Zorionak!**

Lierni, ea Arantxa eta Amaia ere pixka bat zaintzen dituzun, parrandazale hutsak eginda daude eta!

Lourdes, oraingoan ere berriketan harrapatu zaitugu... Aurki ETB2ko saioren batera eramango zaituzte!

Luis, ez zara ez zu berehalakoan urduri jarriko! Hori da hori patxaroso itxura duzuna! **Zorionak!**

Ai **Maialen**, Maialen, ai, Maialen... zure atzetik nenbilen orain baino lehen. **Zorionak!**

Hori da hori posea **Maite**! Bikinia soinean bazenu Ana Obregonen antza izango zenuke! **Zorionak!**

Manolo, aurten ere betiko alproja aurpegiarekin atera zara... ea argazki berri bat ateratzen duzun! **Zorionak!**

Marcos, etziezu utzi bizkarra ematen, bestela aurki ipurdia ere erakutsiko dizute eta! **Zorionak** eta ondo pasa!

Maria, etzazu txintxo aurpegia jarri, aurki tabernariek monumentu bat egingo dizutela jakin dugu eta!

Marijo, zenbat aldiz zigortu duzu Aintzane klasean hitz egiteagatik? Etxera bidali beharko duzu astebeterako!

Mikel, oraingoan ere aitari bazkaria prestatzea bururatu al zaio? Ez da harritzekoa eskuak burura eramatea!

Mikel, oraingoan ere neskak gainetik kendu ezinik zaude... Pasa iezazkiguzu batzuk guri, defizit larria dugu eta!

Naiara, alaitu ezazu aurpegia, gurekin haserre zaudela dirudi eta! (Ez litzateke harritzekoa). **Zorionak!**

Olatz, eutsi iezaiozu bai irrifarreari, bestela astakeriren bat idatziko dizugu eta! **Zorionak!**

Saioa, hori da hori mototxa parea, bata luzea eta antzekoa bestea. **Zorionak!**

Saioa, hori da hori zoriontsu aurpegia duzuna! Ikasturtea hasteko irrikitan zeundela dirudi! **Zorionak!**

Urko, altxa ezazu fotomatoneko aulkia pixka bat, lepoko minez bukatuko duzu eta! **Zorionak** eta ondo pasa!

Consuelo, hori da hori irrifarrea! dirudienez azkenean etxeari paretak altxatzea lortu duzu! **Zorionak!**

Josu, etsita zaudela dirudi, motel! Oraingoan ere Aintzane adarra jotzen ari al zaizu? **Zorionak!**

"Jendeak traumatizatuta

Iñaki, Jon eta Xabierrek %80ko maldak igo dituzte Huascarango gailurrerako bidean.

Peruko gailurrik altuena den Huascaran igo ondoren, Iñaki Alvarez, Jon Maroto eta Xabier Ormazabal etxean dira. Gehienok dakizuen bezala, Jon Marotori eskuetako behatz batzuk izoztu zitzaizkion, baina Zaragozako ospitalean aste batzuk eman ondoren, duela asteburu pare bat itzuli zen etxera. Denboraldi batez kaltetutako behatzak zaindu behar dituen arren, guztiz sendatuko da eta hiru mendizaleak datorren urteko espedizioa buruan dute jadanik. Jon etxera itzuli eta hurrengo egunean izan ginen beraiekin eta datorren urtean Errusiako Komunismo mendira joateko asmoa dutela esan ziguten.

Nolatan erabaki zenuten Peruko Huascaran mendira joatea?

Betidanik mendizaleak izan gara, baina elkar ezagutu genuenean eskalatzen eta alpinismoa egiten hasi ginen. Azkeneko bi urteetan Alpeetan izan gara, Mont Blanc, Cervino eta Monte Rosa igo ditugu, eta aurrerapausu bat emateko gogoa genuen. Egokiena sei milako bat egitea zela pentsatu genuen eta Hegoamerikara joatea erabaki genuen. Hasieran Boliviara joatea pentsatu genuen, baina hango mendiak igotzeko erraz xamarrak dira eta gure asmoa mendi zaila eta altua egitea zen. Hori dela eta, Peruko Huascaran hautatu genuen.

Bidaiaren antolaketak makina bat buruhauste emango zizuen...

Ezagutzen ez duzun leku batera joaten zarenez antolaketak lan izugarria ematen du. Hasieran hainbat liburu irakurri genituen eta ondoren Felipe Uriarte eskalatzaile eta gidariarekin jarri ginen harremanetan. Berak urtero egiten ditu espedizioak Huascaranera, baina guk informazioa soilik nahi genuen, ez genuen gidaririk nahi. Izan ere, gure filosofia mendietara gu bakarrik joatea da. Gidariarekin eta zamaketariekin joanez gero, egin behar duzun bakarra ibiltzea da eta erabakiak ez daude zure esku. Gainera, oso garesti irteten da. Felipek informazioa eskaini zigun eta hegaldia eta bitartekariak lortu zizkigun. Bitartekariek Perun alde batetik bestera ibiltzen lagundu ziguten.

Nola joan ziren Perun eman zenituzten egunak?

Hegazkiank Liman utzi gintuen eta ondoren 3.000 metrora dagoen Huarazera joan ginen, non egun batzuk eman genituen altuerara egokitzeko. Bertatik Ishinca azpian (4.500 metrora) dagoen kanpamentu basera joan ginen asto batzuen laguntzaz. Bertan geundela, altuerara egokitzeko asmoz, Urus (5.420 m), Ishinca (5.530 m) eta Tocllaraju (6.032 m) mendiak igo genituen motxila bizkarrean generamala. Kanpamentu honetan eman genituen lehenengo egunak oso gogorrak izan ziren, altuerara egokitzea lortu genuen arte. Gainera, lau egunetan hiru mendiak igo eta Huarazera itzuli ginenez, nahiko nekagarria izan zen. Normalena Tocllarajutik jaitsi eta lehen kanpamenduan edo oinarrizkoan lo egitea izaten da, baina guk Huarazera joan nahi genuen ondo lo egin eta ondo jatera. Bertan bi egunetan atseden hartu genuen eta Huascaranera irten ginen.

Nolakoa izan zen Huascarango igoera?

Normalena bost egunetan igotzea izaten da, baina guk zorte txarra izan genuen eta zazpi behar izan genituen. Kanpamentu basetik zuzenean lehen kanpamendura joan ginen, baina bertan sekulako haizea egiten zuen eta Campo Morrenara jaitsi behar izan genuen, hala egun bat galdu genuen. Hemendik segidan bigarren kanpamendura joan ginen eta gailurrera igotzeko lehen saiakera egin genuen. Baina bigarren kanpamenduan ez zegoen inor, sekulako haizea egiten zuen eta galdu egin ginen. Haizea baretu zenean gidariak iritsi ziren eta bidea markatu zutenez gu ere goruntz atera ginen. Goizeko ordubatean atera ginen eta hotz jasanezina egiten zuen (-30º inguru).

iritsiko ginela uste zuen”

Eguzkia atera zenean zertxobait berotu zuen, baina iritsiko ginen edo ez zalantzan geunden. Izan ere, bide normalean pitzadura bat agertu zen eta gehienek atzera egin zuten. Batzuek saihesbide bat topatu zutela ikusi genuen eta bertatik aurrera egitea erabaki genuen.

> “Datorren urtean Errusia eta Kazajistan arteko mugan dagoen Komunismo mendira joateko asmoa dugu”

Zer izan zen gogorrena?

Oso nekagarria izan zen: egun asko generamatzan jada mendian eta altura horretan 30 kiloko motxila eramatea oso gogorra da, hemen dagoen oxigenoaren erdia baitago. Eguneroko gauzak egitea (botak lotzea, denda montatzea...) ere oso nekeza da eta hau psikologikoki oso gogorra da. Argi pentsatzea ere kosta egiten da.

Noiz somatu zenituen lehen arazoak, Jon?

Igotzerakoan izan zen, baina ez genuen uste larria zenik. Bigarren kanpamendura jaitsi eta bertan gaua pasa ondoren sekulako babak nituela ikusi nuen. Campo Morrenara jaitsi ginen eta bertako poliziek ospitalera deitu zuten. Kanpamentu basetik jaitsi beharrean bide motzago batetik jaitsi ginen bi ordutan pista batera eta bertan ospitalera eraman gintuen autoa zain genuen. Zaragozara heldu nintzen arte ez nuen uste batere larria zenik. Zaila da zehazki zergatik gertatu zitzaigun asmatzea: ondo ez edateagatik, hotzagatik edo eskularru txarrak eramateagatik izan daiteke.

Etxean ere sustu ederra hartuko zuten...

Etxean izutu xamarrak zeuden. Izan ere, egunkarietan eta irratietan erreskatatu egin behar izan ninduteela esan zuten eta etxera deitzen genuenean ondo geundela esaten genuen arren, ez ziguten sinesten. Herrira itzuli garenean sekulako istorioak entzun direla jakin dugu eta jendeak traumatizatuta iritsiko ginela uste zuen.

Arazo hau alde batera utzita, nolako esperientzia izan da?

Alpeetakoa baino gogorragoa izan da, baita espero baino gogorragoa ere, baina oso polita ere bai. Gailurrera iritsi gineneko momentua oso hunkigarria izan zen, baina jasan genuen hotza sekulakoa izan zen. Hotza egingo zuela bagenekien, baina sekula halako hotzik pasa gabeak ginenez, ez genekien zer nolakoa izan zitekeen. Dena den, izan dugun esperientziarik politena izan da eta bertako kulturak eta jendearen izaerak txunditurik utzi gaitu. Beste leku batzuetan, hizkuntza dela eta, ezin duzu jendearekin hitz egin baina han gainera oso irekiak ziren eta oso jatorrak zirela ikusi dugu.

Datorren urterako ba al duzue jada beste asmorik?

Zazpimila metrotik gorako mendi bat igotzeko prest gaudela uste dugu eta gure asmoa Errusia eta Kazajistan arteko mugan, Himalayako izkinan dagoen Komunismo mendia igotzea da. Baina mendi hau azken urteotan itxita egon da, arazo politikoren bat dagoelako. Mendi hau igotzerik ez badugu, Himalaya barrura sartuko gara eta Pumorira edo joango gara. Pausuz pausu joateko asmoa dugu eta zazpimilako bat egin nahi dugu. Aurtengo bidaia antolatzea sekulako buruhaustea izan bada, datorren urtekoa zer esanik ez. Erosi dugun materiala datorren urterako nahikoa izatea espero dugu, diru asko gastatu baitugu. Eskerrak, dena den, jendeak lagundu digun eta txosnarekin eta kamisetekin diru dexente atera dugun.

Epe luzera non ikusten duzue zuen burua?

Hasiera batean, datorren urtean jada zortzimilako bat igotzen saiatzea pentsatu genuen, baina ez dugu presarik eta zazpimilako bat egiteko asmoa dugu. Dena den, hemendik bi urtera seguraski zortzimila metroko mendi batera joaten saiatuko gara. Oso zaila izango da, inbertsio izugarria egin behar baita, baina bi Gasherbrumetako batera edo Cho Oyura joan nahi dugu. Jendearentzat zortzimilakoak mitikoak dira, baina hauetako batzuetara igotzea ez da hain zaila. Gure ustez, datorren urtean igo nahi dugun Komunismo mendia teknikoki zortzimila metroko mendi batzuk baino zailagoa da. Altuerara ondo egokituz gero eta bide normaletatik joanez gero zortzimila metroko mendi batzuk ez dira oso zailak, espedizio komertzialek igotzen dituztela ikustea besterik ez dago.

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea
☎ 943 72 22 77
URRETXU



Juan Luis Aranburu

Juan Luisek Urretxu-Zumarraga ikastolan hasi zituen ikasketak eta ondoren magisteritza ikasi zuen. Irakasle bezala lan batzuk burutu ondoren, 1990ean Urretxuko udaltzaingoan sartu zen lanean. Lanetik aparte, herriko ekimen eta proiektu ezberdinetan partu hartu du, besteak beste, Lurra dantza taldean, Goierriko futbol taldean, jaietako antolakuntzetan, Aldiri kultur elkartean eta musikari bezala ekitaldi ugarietan. Etxean zuten soinu txiki bat izan omen zen soinua jotzera bultzatu zuena. Alemaniatik etorritako langile batek oparitu zion bere aitari, langile horren famili behartsuari urtetan ogia dohanik ematearen truke. Juan Luis Legazpin, Ordizian eta Donostian aritu zen soinua jotzen ikasten. Duela urte batzuk, berak eta beste hiru lagunek "Ostebi" taldea osatu zuten, 60-70 hamarkadan sortutako euskal kantagintza berria irizpide izan dutelarik. Hauek, besteak beste, urtero kantu afariko kantuak hautatu eta musika jotzeaz arduratzen dira. Musikaz gain, beste hainbat zaletasun ere baditu Juanluk, kirola esaterako (futbolean, pilotan,... aritua da), eta festetako ekintza ezberdinak antolatzen eta beraietan parte hartzen ere aspalditik dihardu. Jaietan partaidetzari garrantzia handia ematen dio eta herritarrek jaietako antolakuntzan parte hartzen ez badute, jaia espektakulo hutsean gera daitekeela, taberna ondoan edukita noski, dio. Orain 15 urte partaidetza askoz handiagoa zela aitortzen digu, beherakada nabarmena antzematen du gaur egun. Dena den, zentzu horretan beste herrietan baino hobe aurkitzen garela onartzen du, eta horren ispilu karrozak dira.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Uff... aspaldiko kontua da, baina besteek bezala futbolaria edo musikaria suposatzen dut.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Musika entzun eta jo, kirola egin eta lagunartean ibili.

-Bizitzeko toki bat?

Herri txikiak eta lasaiak atsegin ditut, trafiko eta zarata gutxi duten horietako bat.

-Nori jarriko zenioke isuna gustura?

Ez da gustu onekoa isun bat inori jartzea.

-Zer da zailagoa, Urretxuko trafikoa bideratzea edo kantu afarian 700 kantariri tonua jartzea?

Herriko trafikoa bideratzea, zailtasunak agerian baitaude. Bestea gogo onez egiten da eta %100eko malgutasuna dago.

-Gustuko soinujolea?

Txikitan erreferentzia Enrike Zelaia eta Kike Ugarte ziren.

-Gustuko folk taldea?

Bertakoak aparte, musika zelta gustukoa dut. Dena den, nahiago ditut kantautoreak.

-Udaltzaina, musikaria... festetaz gozatzeko aukerarik izaten al duzu?

Urtero aisialdirako egun bat hartzen saiatzen naiz, baina dena uztartzea ez da posible. Hori dela eta, parranda kanpoko festetarako utzi behar izaten dut. Zumarragako jaietarako, adibidez.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Berdin zait.

-Egindako azken oparia?

Jostailuren bat izango zen.

-Eta jasotakoa?

Indiako gitarra bat.

-Data bat?

Oroimen txarrekoa naiz, baina nire urtebetetze eguna behintzat beti gogoratzen dut. Ez ditut datak gordetzen, halabeharrezkoak justu-justuan.

-Neska eta mutil izen bana?

Maddi eta Ibai, noski.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Tartean Egunkaria eta Gara.

-Gustuko telebista saioa?

Albistegiak ikusten ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Zoritxarrez loa eta asperkeria eragiten didaten telebista saio ugari daude.

-Liburu bat.

Kutxidazu bidea, Ixabel.

-Filme bat.

La vida de Brian.

-Gustuko abestia?

Lagunartean elkarrekin kantatzeko egokia den edozein abesti. Entzuteko, berriz, asko ditut gogoko.

-Soinu bat.

Asko atsegin ditut: soinuarena, pianoarena, gitarrarena...

-Usain bat.

Naturak lurrin ugari eskaintzen digu.

-Janari bat.

Ongi jateko, arraina nahiago.

-Ura ala...

Tokian tokiko, ardoa, sagardoa, txakolina...

ONDO PASA SANTA ANASTASIAK!

Behi Esnea

Ohizko sukaldeko benetako zaporea lortzeko aproposena

Zaporeduna

ESKAINTZA BEREZIA

Esnezaleen helbideak xorrotik moztearekin bakarrik.
Eskatu oparia zure dendan:

a) Diska egalaria: 10 helbide
b) Kometa: 15 helbide
d) Aterkia: 25 helbide

Promozioa edukiak bukatu arte

Behi Esnea produktoreak

Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu. Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS Nº.A

Iztueta Elkartea
943-88 41 36 /943-88 48 60
Lazkaomendi. Lazkao. Gipuzkoa
B.Z 95.4.00003/SS Nº.A

Agote Etxeberri baserria
Au/Garin 17. Beasain
Gipuzkoa

SANTA ANASTASIAK

THE INTREPID FOX

BAR NAVARRO

JAI-ALAI JATETXEA

Fer's & Co. Factory

OSABA TABERNA
URRETXU

LAKET
URRETXU
1981-2001, 20 urte zuekin

AVENIDA TABERNA
Nueva Avenida, s/n. URRETXU (Gipuzkoa)
Tf: 943 72 50 18

MAITOR
Urretxu Pub

EIRE BAR

Iparragirre kalea, 3 - 20700 URRETXU
EZKURRA taberna
Tel: 943 72 02 03

CAFETERIA
SORALUCE
AITUBE

Florida taberna
GAU - GIRO ATSEGINA ETA MUS TXAPELKETA
Iparragirre,6 bajo. Urretxu.

BERIT
TABERNA

FESTA ERRALDOIA!